

KONDAIRA
Jon Fernández
Ondarroa, 13 urte

Dan...dan... jo dau eleizako kanpaiak eta biloba guztiak urreratu dira amona Nekanegana. Larunbata da eta, astero lez, bere bilobei istorio liluragarri bat kontatzeko zai dago. Amona Nekane 70 urte inguru dauz, baina bere begiek, uleak eta irribarreak 18 urtekoarenak dirudie. Ule horixka eta kirrua dau. Tximini ondoan dago epel-epel eta bere bilobak, lurrean jarrita dagoz bere aurrean. Zortzi biloba eder eta maitagarri dauz bere aurrean eta Nekane beti lez oso pozik dago. Umeak amonari mosu bana eman ondoren jarri dira eta gaurko istorioa entzuteko irrikitan dagoz.

– Gaur kontatuko duetsuedan istorioa, kondaira bat da eta niri gertatu jatan, zuek baino apur bat zaharragoa nintzenean.

“Ni Anboto mendiaren inguruan egoan auzo txiki baten bizi nintzan, Alazarren. Alazar auzoa ez zan inongo mapan agertzen, auzo hau ez eban inork ezagutzen. Oso herri polita zan, berrogeita hamar baserri inguru egozan, denak zuriz jantzita eta txapel gorriagaz. Alazarren ez egoan ikastolarik, baina ortuan egiten genduan lan, taberna ugari egoan eta auzoaren bihotzean beti usoz betetako izugarritzko iturri dotorea egoan eta bertatik emakumeak hartzen eben ura eta arropa ere bertan garbitzen eben. Gure auzoak ez eukan beste

inongo herri edo auzogaz komunikaziorik. Herrian mediku bat egoan eta baita aterpetxe bat ere. Udaletxea iturriaren aurrean egoan, balkoi handi eta Euskal Herriko ikurrin dotorearekin apaindurik.

Nik anaia bat neukan. Josetxu eban izena baina denak *Txikitxu* deitzen eutsien oso garaia baitzan. Josetxuk aitagaz egiten eban lan ortuan eta mendira ehizara eta egurra biltzera joaten ziran. Aitak, etxea berotzeko egurra biltzen eban bitartean, Josetxu zelaian etxunda egoten zan ahoan belar zati bat ebala ardiak zaintzen. Arratserako aita eta Josetxu etxera heltzen ziran. Ama eta ni aterpetxean egoten ginan lanean. Nire amak han egiten eban lan eta ni beragaz joaten nintzan berari laguntzera.

Aspaldi horretan, Alazarren jendea sarri desagertu egiten zan eta denok erantzunaren bila genbiltzan. Alkatea, medikua eta basozaina, herriko jendeagaz batera, aterpetxean batzarrean alkaritzen ziran. Euren helburua desagerpenei erantzuna bilatzea zan, denak esaten eben Anbotoko mendiak jendea irensten ebala, zelan kondairak inoan Anboto barnean izaki maltzur eta itsusiak egozala eta mendian zehar ebilen jendea jaten ebela. Gauero afaltzean etxe guztietan egoan gai bera, kondaira gora eta kondaira behera. Alazarreko biztanle guztiak sinisten eben kondaira hori, nire gurasoak ere bai. Josetxuri ez eutsan ardurarik ezerk eta nik ez neban tutik ere sinisten. Hori zala eta ez zala, mendira igotzea debekatu eben eta ni

harrituta geratu nintzan, egia zan kondairarena. Mendirako bidea debekatu zanetik ez zan egon desagerpenik eta.

Mendiko bidea debekatu zan aste berean familia barri bat etorri zan Alazarren bizitzera. Gure ondoko baserrian bizi ziran, andra-gizonek seme bakarra eben eta oso lotsatia zirudien. Ule motza eta beltzarana zan, begi marroi ilunak ebazan eta beti kalean bakarrik ibiltzen zan. Igandeetan ez genduan lanik egiten eta Josetxu eta biok kalera edo mendira joaten ginan, ezkutaketara... jolastera. Udaletxearen atzean egoan zelaira arineketan gindoazala mutil ha ikusi neban kalekantoian jarrita eta bakarrik. Josetxuri gelditzeko esan neutsan eta geldi-geldi mutilarengana urreratu ginan.

– Kaixo! Zer egiten dozu hemen eta bakarrik?

– Kaixo! Ez dot lagunik, barria naz herrian eta badakizu, hemen, denbora pasatzen

– Ni Nekane naz eta hau Josetxu da, nire anaia bikia, 14 urte daukaz.

– Ah ze kasualitatea nik ere 14 urte dodaz eta Pello dot izena.

– Udaletxe atzeko zelaira goaz jolastera. Nahi dozu gugaz etorri?

– Jakina.

Pello gugaz etorri zan eta alkar ezagutu genduan. Oso mutil jatorra zan, bere aita medikua zan, herriko medikua hil egin zan eta ordezkatzera etorri zan. Bere ama etxeoandrea zan eta Pello bere aitagaz egoten zan ikasten, nagusitan medikua izateko bera ere. Mutil oso argia zan eta ez

eban kondairatan sinisten. Berak esaten eban ezinezkoa zala Anboto barnean izakiak bizitzea eta mendiak pertsonak irensteak ez ebalaz zentzunik esaten eban.

Hile batzuk igaro ziran eta azkenaldian Pello Josetxugaz ardiak zaintzera joaten zan mendira, horrela ingurua ezagutuz. Pello, Josetxu eta ni anaiak bezala ginan. Pelloren ama oso maitagarria zan, mendira joaten ginanean otarteko gozoak jartzen euskuzan. Nik ia nire ama legez maite neban. Egun hartan, etxera heldu ginanean ama eta biok, izugarritzko iskanbila egoan, Pello eta Josetxu, aita lagun ebela txakur txiki baten atzetik ebilzan ari-ri-ri, harrapatu ezinda. Mendian aurkitu eben txakurra eta Josetxuk beretzako hartu eban, ama eta ni ere txakurraren atzetik hasi ginan, txakurrak etxe guztia hankaz gora utzi eban, baina azkenean lortu genduan txakurra harrapatzea. Pello, Josetxu eta aita baserri atzeko zelaira jaitsi ziran txakurrari etxetxo bat egitera. Ama eta ni barriz, etxean geratu ginan den-dena jasotzen. Txakurrari *Gaizto* izena jarri geuntsan eta gu hiruron *maskota* egin zan, beti geugaz ebilen.

Jada ez egoan mendiko bideko debekurik, denak egozan kondairagaz ahaztuta. Egun hartan oso pozik esnatu nintzan, oilarraren kantuagaz batera leihotik begiratu eta eguraldi zoragarria egoan, Pello, Josetxu, Gaizto eta laurok mendira ginoiazan eguna pasatzera. Pelloren amak otartekoak emon euskuzan, zortziretan geratu ginan iturrian Pellogaz. Pellok otartekoz betetako bi poltsa

ekarzan, poz-pozik eta abestuz ia Anbotoko gailurrera heldu ginan. Hantxe egoan lautadaxo txiki batean geratu ginan. Josetxu, beti lez, lurrean etzan zan. Pello eta Gaiztogaz jolastera joan ginan. Goiza amen batean igaro zan, eguerdia zan eta otartekoak janda gengoan ordurako. Jolasteko irrikitan gengoan, Pellok, Josetxu eta ni harrapatu nahian tontor batera igon eban. Ni segituan harrapatu ninduan baina Josetxu ezin ikusita ebilen. Pellok mugimendua ikusi eban lar tartean, eta Josetxu zan, baina, bapatean..., KRAAAAA-UUST!!! ikaragarri bat entzun zan. Josetxuk oihu bildugarri bat jaurti eban eta desagertu egin zan. Pellok ez eban erreakzionatu, zur eta lur geratu zan tontortxo haren gainean, ez zan mugitu ere egiten. Ni bildurtuta nengoan, baina adoretu, lar tartera hurbildu nintzan. Han ez egoan Josetxurik.

Hiru bat ordu igaro genduan Pellok, Gaiztok eta nik Josetxu aurkitu nahian. Azkenean etsita, herri-rantz jeitsi ginan gurasoei gertatua kontatzera. Gau hartan batzarra egin zan aterpetxean, herritar guztiak, armak hartu eta Josetxuren bila mendira joatea erabagi eben. Berriro zabaldu zan kondaira Alazarren. Hileak joan eta hileak etorri inork ez eban Josetxurik aurkitu, harri txikienaren azpian ere miatu eben, baina arrastorik ez. Denok hiltzat emon genduan, nire etxean jada ez zan itzik egiten, denok gengoan lur jota. Hileta bat antolatu zan, baseliza barrizatzen egoanez, Udaletxe aurreko plazan izan zan elizkizuna, herri guztia egoan bertan.

Ordutik aurrera Pello eta ni anaia lez ibiltzen ginan, egunero alkartzen ginan beragatik otoitz egiteko eta biok geunkan, barne-barnean bazan ere, Josetxu barriz ikusteko itxaropena. Bi urte igaro genduzan horrela eta Pellok eta nik 16 gendukazan. Josetxoren urtebetetze egunean alazartar guztiok azkenengoz ikusi genduan lekura joaten ginan bere oroimenez otoitz egitera. Denak behe-ra jaitsi ziranean, Pello, Gaizto eta ni bertan geratu ginan beragati otoitz egiten. Pello negarrez hasi zan, baina ni gogorra nintzanez ez neban negarrik egin. Bapatean Gaizto zaunkaka hasi zan, ez egoan gure ondoan, urrunago egoan. Beragana joan ginan, bere aurrean aitzulo antzeko zulo arraro bat egoan. Bide luzea egoan barrurantz, baina ez zan ondo ikusten dena ilun baiegoan.

– Sartuko al gara Pello?

– Zertarako! Ez dakigu zer dagoan barruan, agian kondairak dinoan izaki horreek dagoz barruan.

– Beno beno! Agian Josetxo aurkituko dogu barruan.

– Horixe bai dala ezinezkoa, non ote dago bera...

Biok Josetxu barriz ikusteko itxaropena genduan eta apurka-apurka sartu ginan. Gaizto ere gure atzetik etorri zan. Denboratxo luzea iluntasunean aurreraka egin genduan. Atzera begiratu eta ez egoan argirik, sarrera itxi balitz bezala. Halango batean argitasuna agertu zan haitzuloaren bestaldean. Nire bizitzan sekula ikusi dodan gauzarik

arraroena zan. Pello, Gaizto eta ni geldi geratu ginan, liluratuta, harrituta, izututa, ikaratuta. Gure aurrean beste mundu bat egoan, gureagaz erkatu ezina. Mendiak eta itsasoak egozan, hodeiak eta ilargia, bizidunak... Inoiz ikusi bako mundua zan. Gauza guztiak itsusiak eta ilun kolorekoak ziran. Mundu itsusiaren atzean munduan sekula egin dan gaztelu bildurgarri eta handiena egoan. Gure aurrean baso ilun bat egoan eta basoan barrena sartu ginan, zerbait edo norbait aurkitzeko asmoan. Gauhontzen oihuak entzuten ziran eta usain eskasa egoan. Basoa atzean utzi genduan eta herrixka baten aurrean agertu ginan. Herrixka ha harresiagaz inguratuta egoan bertako etxeak harri ilunez eginak egozan eta teilatuak lastoagaz. Herrixkara joatea erabagi genduan norbait ezagutzeko eta guri laguntzeko asmoz. Gure nortasuna ere galduta geunkan, bildurra, ikara, izua eta Josetxu geunkan bakarrik buruan. Herrixkara sartzean gure harridura gehitu egin zan. Hango biztanleak ez ziran pertsonak ezta animaliak ere. Izaki hareek inoiz ikusitako bizidun itsusienak ziran, ez daukat hitzik hareek deskribatzeko, deskriba ezinak ziran. Herrixkan barrena sartu ginan apurka, apurka. Nik ez nekien zer egiten neban ere. Gizaki arraroak gugana hurbildu ziran apurka-apurka eta hitz egiten hasi jakuzan. Guk ez genduan ezer ulertzen eta harrapatu, eta soka batez lotu ginduezan hirurok.

Gurdi baten gainean jarri ginduezan lotuta. Herritar guztiak bultzatzen eben gurdia, herrixka-

tik urten genduan eta denak etozen gurdia bultzatuz. Ez naz ondo gogoratzen zenbat denbora egin genduan gurdian aurreraka, denboraren zentzua galdu baineban. Denbora luzean joan ginan aurretantz. Pellok eta nik ez genduan hitzik ere egiten. Beste herri handiago batera heldu ginan eta han geratu ginan. Gu eroan ginduezan gizaki arraroak bertako herritarrekin hasi ziran hizketan. Azkenean gurditik jaitsiarazi eta herriaren erdi-erdian jarri ginduezan. Gure ingurura pila bat egur jaurti eben eta gero sua emon. Sua ikusi genduanean Pellok, Gaiztok eta hirurok bapatean erreakzionatu genduan, barriro geurera itzuli ginen. Pello eta ni oihuka hasi ginan eta Gaizto zaunkaka, ia-ia ahotsa ere joan egin jakun gure garrasiekin. Sua gero eta hurbilago eta gu gero eta urduriago. Suak oinak ikutzen euskuzan eta hiltzat emon genduan geure burua. Bapatean txistu hotsa entzun zan zeruan eta denak isildu eta gorantz begira geratu ziran. Arrano ikaragarri handi bat agertu zan zeruan, 10 metro luzerako gitxienez. Gu hirurongana etorren, bere oin ikaragarriak zabaldu eta hirurok hartu ginduzan. Sutatik libratu ginan, baina zer gertatuko ote zan orain, nor ote zan arranoa, ona ala gaiztoa ote zan?

Mendi handi batzuen gainetik joan ginan hegaz eta mendi handietariko baten, koba baten ondoan lurreratu ginan. Arranoak aske utzi ginduzan eta beragandik apur bat aldendu ginan. Bapatean ahots bat entzun zan.

– Nortzuk zaree zuek? Nondik zatoze?

Gu harrituta gengoan ez baikenduan ikusten nork egiten euskun hitz, bainan halango batean mutil gazte batek urten eban kobatik. Mutil hark 20 urte inguru ebazan, ule luzea eban, marroi kolorekoa. Begi ilunak ebazan eta animalien larruez egoan jantzita.

– Nor zara zu? –esan neban zertxobait ikaratuta.

– Kaixo, ni Kinbeltz naz. Nongoak zaree?

– Gu alazardarrak gara –esan eban Pellok apur bat poztuz.

– Nire anaia orain urte bi mendian desagertu zan eta bera desagertu zan lekuan gengoan herri-tar guztiok otoitzean. Bapatean bide batean ikusi dogu eta barrurantz sartu gara, herrixka bateko biztanleak harrapatu gaitue eta gurdi baten gainean beste herrixka batera eroan. Beste herrixkan sua emon deuskue eta zure arrano hau etorri da gu salbatzera.

– Nire arrano honen izena Buztanbeltz da. Ni ere bide horretatik sartu nintzan hona barrura, orain dala urte asko. Izaki horrek, sarreratik ikusten dan gaztelu ikaragarri horretara, eroan ninduen. Gazteluko kartzelan egon nintzan urteetan, baina ihes egitea lortu neban. Gero Buztanbeltz ezagutu neban eta erreginari bere helburua lortzen ez uzteko, mundu honetara sartzen diran pertsonak salbatzen aritzen gara.

– Zergaitik ezin izan duzu hemendik irten?

– Ezinezkoa da hemendik kanpora irtetzea. Bakarrik erregina irten daiteke bere helburua betetzean.

– Zein da erreginaren helburua ba? –esan eban Pellok oso interesatuta.

– Erreginaren izena Musther da eta mundu itsusi honen jaun da jabea da. Oso maltzurra da eta bere helburua hurrengo hau da: gure munduko pertsonak harrapatzea, gero euren jakinduria kendu eta berak bere buruan sartzea, horrela munduko jakintsuena eta boteretsuena izateko. Laister gure mundura urtengo da eta gure munduaren jabe egingo da.

– A ze maltzurkeria! –esan neban amorru biziz.

– Orduan Josetxu ere gazteluan egongo da ziurrenetik, ezta? –galdetu eban Pellok.

– Bai, ziurrenetik bai.

– Ba bihar bertan joango gara Josetxu eta gure mundu guztia salbatzera! –esan neban neuretik urtenda.

– Hori ezinezkoa da, baina astebete barru agian bai –esan eban Kinbeltzek.

Aste guztian egon ginan eraso planifikatzen. Kinbeltzek goitik behera ezagutzen eban gaztelua bertan egona zan eta, eta horrek asko lagundu euskun. Hurrengo astean arrano gainean jarri eta gaztelu inguruan lurreratu ginan. Aste osoan, esan bezala, bakoitza bere lana egiten hasi zan, Pellok eta nik tunel bat egin behar izan genduan lur azpitik gazteluraino Gaiztoaren laguntzaz.

Bitartean Kinbeltzek hauxe esan eutsan Buztanbeltzi:

– Zerbait gertatu eta txistua jotzen badot etorri arrapalada bizian gu salbatzera, entzun!

Buztanbeltzek baietz esan eutsan buruagaz eta Kinbeltz gaztelurantz abiatu zan. Hango ateko zaindari biei gezi bana jaurti eutsen eta euren arropa jantzi eban, horrela gaztelura inolako eragozpen barik sartzeko. Guk tunelaren bidez gazteluko behe aldean zuloa egin eta bertan sartzea lortu genduan. Kinbeltzegaz batu ginan. Hantxe egozan gure munduko pertsona guztiak hesien atzean eta burua galdua. Josetxu ere hantxe egoan, baina burua galdua beste guztiak bezala. Kinbeltzek hesi guztiak apurtu eta pertsonak askatu ebazan. Denak gorantz hasi ginan erregina aurkitu arte, baina oztopo ugari gaindituz, zaintzaile mordoa hil genduan gorantzakoan. Azkenean erreginarengana heldu ginan. Erregina izaki guztietatik izaki itsusiena zan, larria emoten eban. Erreginarengana hurbildu eta lepoan labana ipini eutsan Kinbeltzek esanez:

– Utzi eiguzu gure mundura joaten eta emon pertsona honeei euren jakinduria, bestela zureak egin dau!

Erreginak hiltzeko bildurrez baietz esan eban, jakina. Orduan Kinbeltzek askatu eban erregina bere eskuetatik eta gugana etorri zan bere poza gugaz banatzera. Denok pozik gengoan, baina bapatean...

– Hau ez da horrela bukatuko! Jja, ja, ja, ja... ja, ja, ja... –esan eban erreginak.

Bapatean gu gengoan zorua goraka hasi zan denok gainean gengoala, sabaia zabaldu zan eta gaztelu gainean geratu ginan. Erreginak hitz arra-

roak esan ebazan. Bapatean zerua hodei beltzez estali zan, euria hasi zan eta trumoiak eta baita tximista bortitzak ere. Kinbeltzek boltsikotik txistua jotzeko xirula txikia atara eban, ahora eroan eban Buztanbeltzi abisatzeko, baina haize bortitzak erreginaren hanketara bota eban. Erreginak hurrengo esan eban:

– Zertarako da hau? Hiltzorian eta musika dozu buruan? Gizarajo alua!! Denok gure azkena zala uste genduan.

– Musika nahi dozu? Ba tori musika! Jja, ja, ja, ja... –esan eban erreginak eta xirula ahora eroanez txistua jo eban.

– Eta orain dator zuen azkena! –esan eban zerura begira.

– **Tunba – Katunba**

Zeru eta Lurra

Tximista ikaragarri batek

jo dagiala gizarajo honen Burua !!!!!

Eta tximista ikaragarri bat gugana etorrela tximista baino arinago Buztanbeltz etorri eta denok salbatu ginduzan. Tximista horrek gaztelu osoa jo eban eta erregina kixkalita hil zan. Erregina hiltzean, pertsona guztiak euren onera bueltatu eta bertako biztanle guztiak hil ziran. Zeruan, hodei artean, argi ikaragarri handi bat zabaldu zan, gure mundurako bidea zan. Argitasuna txikitzen joian eta ia ezin izan ginan pasatu, baina zorionez gure mundura heldu ginan. Beste mundu alu hartako bidea betiko itxi zan. Gure mundu ederra ikusten zan, gure Euskal Herri ederra. Alazar ere ikusten

zan. Kinbeltzek arranoa lagun ebala, Pello, Josetxu, Gaizto eta ni gure herrian utzi ginduzan eta beste pertsona guztiak euren herrietan uztera joan ziran. Alazarren jaialdi bat antolatu zan gure etorreragaitik. Ordunik aurrera ondo bizi izan ginan Alazarren, eta jendeak oraindik Anboto inguruan gizon bat dagoela dino, arrano handi bategaz Euskal Herria zaintzen.

– Gustatu al jatzue gaurko kondaira?

– Bai, oso polita izan da –erantzun dabe ume guztiak euren amonari begiratuz eta, nolako emakume ausarta daben euren aurrean pentsatuz.

Bilobak euren etxeetara joan dira jada euren gurasoekaz eta Nekane etxean dago, tximini ondoran bere anaia Josetxu eta lagun Pellogaz oroitzen, euren gazte denbora zoragarri eta eder hartaz oroitzen.